**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1  
20749 AIZARNAZABAL  
(Gipuzkoa)

Zenbakia \_\_\_\_\_

07/2015

**EZ-OHIZKO OSOKO BILKURAREN AGIRIA**

2015/07/17

**BERTARATUTAKOAK:**

2015eko Uztailaren 17an burututako Udal  
Ez Ohizko Osoko Bilkuraren Agiria.

**ALKATEA:**

Mari Carmen Arregi Agirre.

Aizarnazabalen, bi mila eta hamabost garreneko Uztailaren hamazazpian, arratsaldeko 6ak zirela eta, Azaroaren 28ko Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa onartzen duen 2568/1986 Erret Dekretuaren 38 artikulua agintzen duena betez, hau da (Udal berriaren eraketaren egunetik hogeita hamar egun daudela Herri Gorporazio berriaren funtzionamendua finkatzeko) biltzen dira alboan idazten direnak, Udal Osoko Bilkura burutzeko asmotan. Iratxe Ciarrusta Zinegotzia 6ak eta laurdenetan iritsi zen.

**ZINEGOTZIAK:**

Imanol Kortxa Gurrutxaga.  
Ainhoa Etxabe Zubizarreta.  
Joseba Mujika Larrañaga.  
Lorea Elustondo Erauskin.  
Eñaut Larrarte Salaberria.  
Iratxe Ciarrusta Bilbao.


**ETORRI IZAN EZ DUTEN****ZINEGOTZIAK:**

Inor ere ez.

**IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:**

Begoña Gorritxategi Osa.

1. Azkenengo Udal Osoko Bilkuraren Agiria onestea, hala badagokio.
2. Ordainketen onarpena.
3. Alkateak eman dituen Dekretuen berri ematea.
4. Udal Osoko Bilkura Ohizkoak noizero egingo diren erabakitzea.
5. Alkatearen Ordezkoak nortzuk izango diren berri ematea.
6. Udal honek parte hartzen duen Elkarte Kolegiatuarentako kideen izendapena.
7. Batzorde Informatiboak eta sail bakoitzaren arduradunaren izendapena.
8. Alkatearen lan dedikazioa eta soldata, eta Zinegotzien dietak.
9. Lauburu eraikinaren fatxadaren birgaitze egitasmo teknikoa eta baldintza administratibo partikularren plegua onartzea obrak lizitzatzeko.
10. Galdera eta erantzunak.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1  
20749 AIZARNAZABAL  
(Gipuzkoa)

Zenbakia \_\_\_\_\_

**1) Azkenengo Udal Osoko Bilkuraren Agiria onestea, hala badagokio.**

Alkate Jaunak galdetzen du ea 07/2015 zenbakia daraman Ez Ohizko Osoko Bilkuraren Agiriaren Zirriborria, 2015eko ekainaren 13an burutakoa onartzeko adoz dauden edo aldaketarik egitea nahi duten.

Bertaratutakoek ados daudela adierazten dute, beraz, 07/2015 zenbakia daraman Ez Ohizko Osoko Bilkuraren Agiriaren Zirriborria, 2015eko ekainaren 13ean burutakoa ahobatez onartzen da.

**2). Ordainketen onarpena.**

Ondorengo fakturak onartzea erabakitzen da:

- Faktura zenbakia: 13/2015. Patxi Gastaminza Santa Coloma. 4.692 euro.
- Faktura zenbakia: 5356. Bigara 2 aulki Idazkaritzarako: 1.281,51 euro.
- Gizarte Langilearen proposamen GLL 2105eko ekainekoa: 2.534,00 euro.

**3) Alkatearen Dekretuak.**

Gai ordenarekin jarraituz, ondorengo Dekretuen berri ematen da:

- 32/2015 zenbakia daraman Alkate Dekretua: Obra baimena Repsol Butano S.A.ri gas propano biltegia tokiz aldatu eta sarea handitzeko Mikel Kalean.
- 33/2015 zenbakia daraman Alkate Dekretua: Lorea Elustondo Erauskin Anderea izendatzen da Aizarnazabalgo Udaleko Diruzaina.
- 34/2015 zenbakia daraman Alkate Dekretua: Lanbide Enplegu Zerbitzuak diru laguntza eman du Enplegua sustatzeko Toki Ekintzetarako laguntza deialdiaren babesean 2015/03/31 EHHAn argitaratu zena dela eta, bi langile kontratatu dira: garbitzailea Maria Angeles Larburu Ortega eta Peoia Jose Mari Larrañaga Martija Jauna.

**4) Udal Osoko Bilkura Ohizkoak noizero egingo diren erabakitzea.**

Kontutan izanda, Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen 7/85 Legearen 46 artikuluan, eta Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa erregulatzen duen Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekratuaren 38.a) artikuluan

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1  
20749 AIZARNAZABAL  
(Gipuzkoa)

Zenbakia \_\_\_\_\_

Herriko organo kolegiatuen funtsionamendua eta Udal Osoko Bilkura Ohizkoak noizeron egingo diren finkatu behar dela erregulatzen dela, Udal Osoko Bilkurak ahobatez, zera erabakitzen du:

- Aizarnazabalgo Udal Osoko Bilkura Ohizkoak, hilero egingo dira, hil bakoitzaren azkeneko laugarren asteazkenean, arratsaldeko zazpi terdietan, Udaletxeko Areto Nagusian eta egun hau jai-eguna tokatuko balitz hurrengo lanegunean burutuko dela.

**5) Alkatearen Ordezkoak nortzuk izango diren berri ematea.**

Kontutan izanda, Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen 7/1985 Legearen 125 artikuluan, eta Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa erregulatzen duen Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekratuaren 38.d) artikuluan Alkatearen ordezkoen gaia erregulatzen dela, Alkateak, ondorengo ALKATE ORDEA izendatzen duela adierazten du:

- IMANOL KORTA GURRUTXAGA JAUNA.

**6) Udal honek parte hartzen duen Elkarte Kolegiatueterako kideen izendapena.**

Kontutan izanda Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa erregulatzen duen Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekratuaren 38.c) artikuluan xedatzen dela, Udal Osoko Bilkurak izendatu behar dituela Kide Anitzeko Organoetan Udal hau ordezkatuko duten kideak, ahobatez ondorengoak izendatzea erabakitzen da Aizarnazabalgo Udala ordezkatu dezaten:

**UROLA ERDIKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA:**

Titularrak:

Ainhoa Etxabe Zubizarreta; Joseba Mujika Larrañaga; Mari Carmen Arregi Agirre.

Ordezkoak:

Imanol Korta Gurrutxaga; Lorea Elustondo Erauskin; Eñaut Larrarte Salaberria.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1  
20749 AIZARNAZABAL  
(Gipuzkoa)

Zenbakia \_\_\_\_\_

UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea):

Titularra: Lorea Elustondo Erauskin.

Ordezkoa: Eñaut Larrarte Salaberria.

URKOME (Urola kostako Mendinekazaritza Elkartea):

Titularra: Ainhoa Etxabe Zubizarreta

Ordezkoa: Imanol Korta Gurrutxaga.

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA:

Titularra: Imanol Korta Gurrutxaga.

Ordezkoak: Joseba Mujika Larrañaga; Mari Carmen Arregi Agirre.

**7). Batzorde Informatiboak eta sail bakoitzaren arduradunaren izendapena.**

Gai ordenarekin jarraituz, Udalean ondorengo sailak eratzen dira, eta arduradunak izendatzen dira, bestak beste ondorengoak:

**HIRIGINTZA:**

Imanol Korta, Joseba Mujika eta Mari Karmen Arregi.

**ZERBITZUAK:**

Mari Karmen Arregi.

**HAZIENDA:**

Lorea Elustondo, Ainhoa Etxabe eta Mari Karmen Arregi.

**GIZARTE ONGIZATEA:**

Mari Carmen Arregi eta Lorea Elustondo.

**KIROLA - GAZTEDIA:**

Eñaut Larrarte, Ainhoa Etxabe eta Joseba Mujika.

**INGURMENA:**

Mari Carmen Arregi eta Eñaut Larrarte.

**NEKAZARITZA:**

Ainhoa Etxabe eta Imanol Korta.

**KULTURA-HEZKUNTZA:**

Joseba Mujika, Lorea Elustondo eta Mari Carmen Arregi.

Euskara eta Berdintasuna arlo guztietan landuko da.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1  
20749 AIZARNAZABAL  
(Gipuzkoa)

Zenbakia \_\_\_\_\_

**KONTUEN BATZORDE BEREZIA.**

Kontuen Batzorde berezia derrigorrez sortu behar da, azaroaren 28ko Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa erregulatzen duen Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Erret Dekretuaren 127 artikulua araber. Hau ondorengo kideek osatuko dute:

Mari Carmen Arregi, Lorea Elustondo eta Eñaut Larrarte.

**8) Alkatearen lan dedikazioa eta soldata, eta Zinegotzien dietak.**

Kontutan izanda, Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen 7/85 Legearen 75 artikuluan, eta Entitate Lokalen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa erregulatzen duen Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuaren 13 artikuluan Udal Gorporazioetako kideen ordainketak arautzen dituela, Udal Osoko Bilkurak ahobatez, zera erabakitzen du:

- Mari Carmen Arregi Agirre, ALKATE kargua gatik, hilean 1.000 Euro garbi jasoko ditu, jornada erdiko dedikazioa izango du, 14 paga jasoko ditu urtean, eta Gizarte Segurantzari Alta emango zaio 2015ko uztailaren 20an.
- Zinegotziak, hilean, 93,78 Euro onartzea bakoitzaren dieta, Udal Osoko Bilkuretara eta Batzordeetara egortzea gatik.

**9. Lauburu eraikinaren fatxadaren birgaitze egitasmo teknikoa eta baldintza administratibo partikularren plegua onartzea obrak lizitzeko.**

Kontutan hartuz, parkeko eskallarak eta muroa konpontzea ez daudela proiektuak sartuta, gai hau mahai gainean uztea erabakitzen da aho batez.

**10.- Galdera eta erreguak.**

Ez dago.

Eta beste gairik ezegoela ikusi ondoren, Udal Osoko Bilkura hau gaueko arratsaldeko zazpietan amaitu zen eta Idazkaria naizenez ziurtatzen dut Alkatearen On Eritziarekin.

O.E.

ALKATEA,

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA,

